

Aurkezpena¹

José Antonio Herce San Miguel

15

Luze bizitzearen fenomenoa -ez arazoa- duela mende bat baino gehiagotik dator herrialde gehienetan, eta aurrerapen izugarria izan du XIX. mendearen amaieratik. Azaltzen zaila bada ere, berez albiste handia dena, alegia, gero eta gehiago bizi gara, beste ikuspegi batetik ikusten da nagusiki: «zahartzea»² besterik ez dugu ikusten.

Jende askorentzat -batzuk adituak-, erakundeentzat eta arduradun politikoen-entzat, kontua da gizabanakoak eta gizarteak «zahartzen» direla. Eta ikuspegi nagusi hori ez da intentzio baten ondorio, batzuen iritziz interesatua izanik ere, baizik eta gizakien bizitzaren luzapen orokortuari lotutako kausak, inguruabarrak eta itxaropenak oro har ez ezagutzearen ondorio.

Ekonomiaz-en monografiko berezi hau zientzialariek, adituek eta analistek gidatutako korrante bati lotzen zaio. Korrante hori gero eta joriagoa da, eta erakutsi nahi du gure gizarteetan -aurreratuak ala ez-, bizitza gero eta luzeagoa izatea garrantzi handiko fenomeno dela, eta mota guztietako inplikazioak dituela; horien artean, negatiboak bakarrik nagusituko lirake baldin eta fenomenoak barne hartzen dituen promes positibo paregabeak uztartzeko beharrezko egokitze-neurriak hartzeari uko egingo bagenio, aldaketekiko eta egokitzapenekiko erresistentzia handiegia- ren ondorioz.

Bizitza luzeak, eta ez «zahartzeak», dena iragaziko du. Hasi gizabanako bakoitzaren bizi-zikloetatik eta horien plangintzatik, eta ongizate-programa handietaraino (hala nola pentsioak, osasungintza edo mendekotasuna), tartean direla desberdintasunaren aurkako borroka (generoarena barne), lan-merkatua edo finantza-berrikuntza. Irekita dago etorkizuna, baina gerora bistara agertuko zaizkigun hazi batzuk ernatzen ari dira dagoeneko.

Aurre egin beharreko ondorioak dakartzaten elementu dinamizatzailez lodi dagoen esparru orokor horren aurka, populazioaren «zahartzearen» ikuspegi nagusiak goibela

¹ Monografikoaren aurkezpen honek liburukia sortzen lagundu duten egileek emandako eta garutako ideia nagusiak laburbildu eta artikulatzen ditu, koordinatzailearen argudioak ere sartuz, tarteka; argudiook erdizka daude bere garaian egile bakoitzarekin adostuta, zenbaki bereziaren plana ezarri zenean. Liburukiaren zati honetan esaten den guztia autore bakoitzari zuzen egotzeko, beraz, autore bakoitzaren kapitulu- eta irorriko dugu irakurlea. Horrenbestez, sarrera honetan esaten den guztiaren erantzukizuna dena delakoa esan duen egilearen kontura bakarrik geratzen da.

² Aurkezpen honetan, aurrerantzean, «zahartze» terminoa eta antzekoak komatxo artean agertuko dira, behin baino gehiagotan. Horrekin, kontzeptuak esanahi komunarekin nolabaiteko desadostasuna duela nabarmendu nahi da -gehienetan testu nagusian azalduta egongo bada ere-.

dirudi, are gehiago, okerreko politikak hartuko direla iragartzen du, eta politika horien ondorioak okerragoak izango direla ustezko gaitza bera baino. «Zahartze» horren daku-sagun plano positibo bakarra balitz «*Silver economy*» deritzogun hori, marketinaren esku lagatzen ari ginatete gizarte osoari –erakundeen eta arduradun politikoen bidez– eta, beziki, herritar bakoitzari dagokion egokitzapen-prozesuaren erantzukizuna.

Adinak hainbat dimentsio ditu, eta halaxe esploratzen du, oparo asko, **José Miguel García-Pardok** lehen artikuluan, ikerketa zientifikoa erabat mendean hartuta. Jakina, dimentsio kronologikoa dago (egutegiarena), eta esparru horretan pasa den urte bakoitza iragandako urtebete da. Baina bada adin biologikoaren dimen-tzioa ere, pertsona bakoitzarengan era bakarrean agertzen dena, eta, haren dimen-tzio horren baitan, oro har, pasa den urte bakoitza kronologikoki urtebete baino nabarmen txikiagoa da. Ezin ahaztu «adin soziala» ere (ikus Elisa Chuliá-ren artikulua). Aurrerapen zientifikoak –aski ezagunak dagozkien inguruneetan, baina apenas zabaldu gabeak herritarren artean–, zahartzeko prozesuari buelta ematen ari zaizkio laborategietan, edo bizitza-luzeraren bor-borka jarriko duten haziak ereiten ari dira, 120 urteko «hilkortasunaren konpresioa» bera ere atzean uzteko moduan. Ikusitako joerek bere horretan iraungo dutela pentsatze hutsak ezinbestekoa du bizi-zikloarekin lotutako portaerak, erakundeak eta politikak aldatu beharra, nabarmen aldatu ere. Aldi berean, Espainiako daturik berriek –baina beste herrialde batzuetan dagoeneko ibilbidea egina dute datuok–, erakutsi dute bizi-itxaropena ez dela ari luzatzen, aldiz, mozten ere ari dela. Orokorra edo zenbait gizarte-talderentzat. Zaila da hain datu berrien inferentzia egitea; gainera, gertaera horiek denboran luzean mamitzen dira. Hala ere, desfasea dago pertzepzio sozialen, ebidentzia zientifikoen eta egokitzapen instituzionalaren artean. Lerrokatzea ez da erraza, baina asimetrikoa izan daiteke, eta, ikusita erakundeek denbora luzea behar dutela bizi-luzetasunak iraganean egindako aurrerapenetara egokitzeko, gerta daiteke luzatzea apur bat moteldu izana aitzakia izatea berriz ere motel jokatzeke. Hala eta guztiz ere, bere saiakera laburrean, **Aubrey de Grey**k bizitza luzearen ikuspegi aurreratua emango digu, gizakia hilkortasunaren «ihes-abiaduraren» bidean jar lezakeena.

Bizi-luzera gero eta gehiago «zahartzetzat» jotzea gehien eragin duen faktoreetako bat zera da, jaiotza-tasa behea jota dagoela. Herritarrek ere hautematen dute fenomeno hori, hondamendia bailitzan hauteman ere, horretan gehiegi enfokatuta dauden analisten kemenik gabe. Pertzepzio horrez gaina, arduradun politikoeak ia aho batez diote jaiotza-tasa sustatu behar dela. Espainiako jaiotza-tasak aspaldidanik munduko indizirik baxuenetakoa du, ez da zalantzarik horretan, eta hori perspektiban jartzearen, **Julio Pérez Díaz**-ek dio, nolana ere, Espainiako demografiak bere historia osoko erregistro orokorrik onena duela gaur egun, kohorte guztiei, edozein adinetan, eragiten dien garapena baitu. Bizi-itxaropenak nabarmen gora egiteak eta jaiotza-tasek behera egiteak, ezinbestean, adierazten dute adinen egitura bera ere sakon aldatu dela. Aldaketa horrek emaitza estatistiko hutsa dakar: biztanleriaren batez besteko adina handitzen ari da, eta biztanleriaren piramidean adin handikoak nagusitzen ari da gero eta gehiago.

Azterketa demografikoaren tresna nahasgarri horretatik ikuspegi konbentzionala ateratzen badugu, «zahartzen ari gara» ondorioztatuko dugu ezinbestean. Baina ikuspegi aurreratuagoak hartzen baditugu XXI. mendeko prozesu demografiko be-reizgarrien formalizazioak azalpen aurreratuak behar ditu, hala nola «ugalketa-iraultzaren teoria», artikulua honen egileak defendatzen duena, bere ustez horrek azalduko bailuke nolatan mamitu den gizakiak bizi izan duen hirugarren «trantsizio demografikoa», denetan garrantzitsuena. Ez alferrik, hauxe dio saiakera laburrean **Luis Garrido**-k: «Baliteke agerikoa ez izatea, baina giza generok lantzen dituen ekoizpenetatik funtsezkoena gizakia bera da. Agian ebidentzia hori ezkutuan gertatzen da ez dagoelako haurrak ekoizteko enpresa handirik, aitzitik, oinarritzko produktu hori familia izena duten negozio txikien eskuetan lagatzen da». Bada, ugalketarako familia mikroenpresen eredu hori, muga biologikoak gainditu beharrik gabe, aldatu egin da, eta agian betiko.

«Zahartzean» eta horren ustezko arriskueta hain zorrotz jartzen dugu fokua, ezen **Unai Martin**-ek, hurrengo artikuluan, bere buruari galdetzen baitio ebidentziak justifikatzen ote dituen ugaritzen ari zaizkigun interpretazio katastrofistak. Bere ekarpenaren hasieran jarri duen izenburua soilik alegiaz bihurtu da egia. Eta soil-soilik, baldin eta analisi zientifikoarekiko mespretxu nabarmena eginez eta inongo zorrozta-sunik gabe «suizidio demografikoa» esaten diogun horri hauspoa ematen jarraitzen badugu. Badirudi benetako arriskuaren iturburua imajinario kolektiboa dela, imajinario horrek, oraingoz lehertu ez denak, gaizki (edo gehiegikeriaz) hautematen baititu bizitza luzeagoak izateak, hori berri paregabea bada ere, dakartzan inplikazioak (negatiboagoak). Euskal Herriaren kasurako eskuragarri dauden datuak erabiliz, egileak erakusten du zahartzeak ez duela morbiditatearen igoera nabarmenik eragin (beldur zabalduenetako bat hori da), eta, neurri itxurazkoak hartuz, ez lukeela zertan beste ongizate-programa handi batzuetan eragin (pentsioetan, besteak beste). Bereziki kezka-garria da ideia katastrofistek komunikabideen titularretan duten oihartzuna.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren alderdi sozioekonomiko garrantzitsuenen artean, lan-merkatuarekin, osasun-gastuarekin edo iraupen luzeko zaintza-sistema-rekin (mendekotasuna) zerikusia duten alderdiak daude, baina ez da ahaztu behar, bizi-itxaropena handitzearekin batera, ia ez igartzeko moduan bada ere, iraganean baino askoz gutxiago onartzen ditugun banaketa-distortsioak areagotu direla, belau-naldi barruan nahiz belaualdi batetik bestera.

Lan-merkatuari dagokionez, **José Antonio Herce**-k ezartzen du harrigarria dela, gutxienez hori, biztanleriaren lan-jarduera hain urria izatea, bizitza gero eta luzeagoa izan arren eta 55-70 urte bitartekoen artean kalitate gero eta hobea izan arren. Emakumeen lan-jarduerak, ia generoa parekatu arte, 55 urte inguru bete arte izan duen gorakada bikaina izan duen arren, espainiarren (eta beste herrialde askoren) lan-jardueraren normalizazioa bat-batean geratu egiten da adin horien ondoren: adin horretatik aurrera, bi sexuen jarduera-tasek bat-batean behera egiten dute, harik eta, benetako erretiroaren atarira iristean, jarduera ia batera izan arte, eta horrek

arazo asko eragiten ditu. Biztanle batzuek –nahiz emakumeek gainbeherari pixka bat eusten dioten– lan-jarduerari bat-batean, ia arrapaladan, horrela lagatzearen atzean dauden mekanismoak materialak zein pertzepziozkoak dira, eta ez daude oso landuta ikuspegi integraletik. Baina inplikazio nagusia da gaur egun 55 edo 60 ur-te-rekin lan-jarduera masiboki eteteak tentsio handia eragiten diela langabezia-prestazioen sistemei eta, bereziki, erretiroari. Hori gutxi balitz, langileek egiten dituzten era guztietako zereginak automatizatzeak larritasuna ematen die automatizazioak arazo horiek areagotu besterik ez dutela egingo uste dutenei.

Adin-egituraren desoreken inplikazioetatik eztabaida gehien eragiten dutenak, besteak beste, ongizate-programa handien iraunkortasunari buruzkoak dira, hala nola pentsioei eta osasun-gastuei buruzko inplikazioak. Azken horri dagokionez, **José María Abellán** eta **Jorge Eduardo Martínez Pérez** egileek zahartzeak etorkizuneko osasun-gastuan izango duen eraginaren azterketa xehatua egin dute. Azterketa hori, jendartearen, zalantzarik eta hausnarketarik egin gabe, «zahar» gehiagok osasun-gastu handiagoa dakartela argudiatuz ebazten da; hala ere, azterketak erakusten du biztanleriaren adin-egitura adin handietara (muturrekoetara ez bada) hurbildu ahal gero eta partzialago egoteak ez duela zertan ekarri osasun-gastua handitzea. Osasun-gastua faktore askoren arabera dago, hala eskariaren edo beharraren arabera (biztanleria eta adin-egitura, morbiditatea) nola eskaintzaren edo kostuaren arabera (giza baliabideak, instalazioak, teknologia, «ostalaritza-zorroa»). Gainerako faktoreen jakinaren gainean gaudela, normala da pentsatzea zenbat eta biztanle gehiago edo biztanleria «zahartuago», orduan eta osasun-gastu handiagoa izango dela, baina kontrapisu ugari dabilta itxuraz hutsala den arrazoibide horren aurka. Egileek osasun-gastuak BPG-arekiko daukan gastuaren ratioaren gainean landu duten deskonposizioak argi eta garbi erakusten du gehiegi aurreratzea dela ziurtatzea Espainiako edo beste herrialde askotako joera demografikoek osasun-gastua nahitaez handituko dutenik, eta, ondorioz, jasanezina izango denik.

Konplexuagoa da zahartzearen eta mendekotasuna (luzerako zaintzak) luza-tzearen artean egiten den lotura. Ziurta daitekeen neurriraino, bizi-itxaropena luza-tzearen ondorioz, adinean aurrera joandakoan gertatzen diren gaixotasunak orokortuak iruditzen zaizkigu gaur egun, familia eta pertsona-zirkulu guztietan. Baina, lehen ez bezala, gero eta gehiagotan ikusten dugu zenbait gaixotasunen prebalentzia, adibidez, alzhimerrarena, gero eta gazteagotan agertzen dela. **Gregorio Rodríguez Cabrero**-k «XXI. mendeko kontingentzia» gisa jorratzen du mendekotasunaren kontzeptualizazioa, Ongizate Estatuaren programa handien barruan. Gure egitura soziosanitario konplexutik hasi, eta eremu pertsonal, familiar eta ekonomiko are konplexuagoetara arte (are konplexuago dira elkarri eragiten diotelako gaur egun arte sistemaren hedapena dinamizatzen jakin ez duen Espainiako lege handinahi baten esparruan). Zahartzea, bestalde, iraupen luzeko zaintza-sistemaren dianaren erdian dagoen dardoa da, logistika nahi baino gutxiago hedatuta dagoenean jotzen duena xedea. Dena ez da itzal, halere, halaxe argudiatzen du Aubrey de Grey-k bere saiakera laburrean; laborategiek gaur heriotzara garamatzaten gaixotasunak kroni-

fikatuko dituzten balizko irtenbideen haziak eduki ez ezik, balitekeelako, aldi berean, mila urteko ere bizitzaren oinarriak finkatzeko modua izatea.

Mendekotasunaren errealitatea, lehen esaten zen bezala, uste ezta indarrez ari da jotzen gizarte aurreratuak, baliabideak eskas diren honetan, etxeek (barka, emakumeek) eguneroko hainbat lan aurrera ateratzea gero eta latzago duten honetan. Finean, aurrean dugun erronkari erantzun behar diogu, erronka horrek definituko baikaitu, aurre egiteko moduaren arabera. Eta, hain zuzen ere, ikuspegi anitz horietatik, horien artean generoarena nabarmentzen dela, **Mertxe Larrañaga**-k, **Arantxa Rodríguez**-ek eta **Yolanda Jubeto**-k Euskal Herriko kasuaren azterketa egin dute, analitikoki zorrotza eta, aldi berean, enpirikoki dokumentatua. Problematika antzekoa da beste lurralde askotan, populazioaren egitura, etxe barruko zein erakundeetako portaera desberdinak direla aintzat hartuta ere. Biztanleria idoi eta zahar bihurtzen da, baina, aldi berean, zahartzaroa feminizatu egiten dira. Horren eraginez, aurreko paragrafoan aipatu den bezala, iraupen luzeko zaintzak (gehiene-tan emakumeek ematen dituztenak) behar dituzten desgaitasunen eta gaixotasunen prebalentzia handiagoa espero dugu. Ikuspegi hori horrela izanda, zainketei aurre egiteko logistika material espezifikoak, neurri handi batean, faltan dago edota deskoordinatuta dago, edo gutxiegi finantzatuta; horrez gain, aurrerapen bizkorra behar da emakumeen eta gizonen arteko zainketen erantzunkidetasuna ezartzeko, bai eta paperak egoki banatzeko ere (erakundeek hartuko dute horren ardura).

Zahartzeak izugarri eragiten die pentsioei...ala ez? Ba, segun eta. Izan ere, arazo horri buruzko azterketa konbentzional gehien antzera, «nola» edo «noiz» garrantzitsuak dira bai, baina bi fenomeno horiek lotzen dituzten harreman ez-konbentzionalak ere aztertu behar dira. Bere lan akademiko berria, beste egile batzuekin batera aitzindaria izan dena, laburbilduta, esan genezake **Mercedes Ayuso**-k xeheetasunez azaltzen dituela pentsio publikoen sistemai datzekien baina oso ezezagunak diren ezaugarri batzuk. Batez ere, bi dimentsiotan. Lehenik eta behin, nabarmendu behar da bizi-itxaropena, espero izatekoa denez, heterogeneoa dela, ez bakarrik gizonen eta emakumeen artean, baita «pobreen» eta «aberatsen» artean ere (ez da beharrezkoa oso pobrea edo oso aberatsa izatea desberdintasun handiak pairatzeko, baldin eta, gainera, ezaugarri hori zuzenean uztartuta badago hezkuntza-mailarekin) edo bikotea duten edo ez dutenen artean (gizonen kasuan, bereziki). Errenta edo hezkuntza mailaren arabera heterogeneotasunak berez dakar pobreek aberatsen pentsioak diruz laguntzen dituztela neurri batean, eta Gizarte Segurantzaren betidanik gertatu izan da hori, herrialde guztietan. Bigarrenik, artikulu honetan oso era adierazgarrian erakusten da, zifra argi eta garbiak emanda, Julio Perezen lanean jada agerian geratu zena, alegia, bizi-itxaropena kalkulatzeko modu arruntak (mundu osoan, salbuespen gutxi batzuk izan ezik) seriooki kalkulatu du bizi-itxaropena, %15etik hasi eta %30era bitartean. Hau da, pentsio sistemek, publikoek zein pribatuek, ez dakite zeri egin behar dioten aurre. Erronka izugarria da, bereziki publikoentzat eta prestazio definituko sistema pribatuentzat.

Aurreko paragrafoko lehen esaldia ixten duen galdera erretorikoari ihes eginez erantzun diogu: segun eta. Bada, baldin eta, monografiko honetako hainbat artikulutan esan duten bezala, «zahartzea» ez bada zahartzea (komatxoak dagokion lekuan), orduan ez du zertan pentsioetan eragin, nahiz horren izan gu. Horretarako, erretiro-adinari buelta bat eman behar diogu. Adinaren, edozein adinen, kudeaketa soziala, gainditu gabeko ikasgaia dugu, bai Espainian bai handik kanpo. Mundu osoan bizi-itxaropenak izan duen aurrerapen izugarria bada ere, erretiro-adina Gizarte Segurantza asmatu zeneko bera da oraindik ere. Oso herrialde gutxik dute erretiroa 65 urtetik gorakoa, eta bakar batek ere ez 70 urtetik gorakoa. Adinaren «kudeaketa soziala» ez dago ondo eramanda, argi eta garbi; horregatik, **Elisa Chuliá**-k erantzun bat planteatu du azaltzeko zer dela-eta gizarteak ez duen ulertzen bizi-itxaropenaren hedapenaren fenomeno aparta, kontuan izanda aurkatzen zaila den logikan oinarritzen dela jakinda. Eta hau da logika hori: zergatik ez dugu erretiro-adina bizi-itxaropenaren arabera egokitzen? Eztabaida, adostasunak bilatzera jarrita, ez dago batere gaizki. Adostasunak, alde batetik, eta, bestetik, irtenbideak (adinaren kudeaketa egoki batetik sortzen direnak). Adina gizartearen ikuspegitik ulertzeko beharrezko tresnak eskura izan ala ez, ez daukaguna zera da, irtenbide egokirik. Hobeto esanda, XX. mendeko irtenbideak ditugu, eta behin eta berriz saiatzeko gara XXI. mendeko arazoei aplikatzen, arazoak ondo diagnostikatua ere eduki gabe.

Adibidez, pentsioa jasotzeko adina gaindituta ere, ekitaldi bakoitzean, oraindik ere lanean jarraitu nahi duten langileei erantzun egokia emateko irtenbideak. Langile horiek diru-sarrera profesionalak edo laneko diru-sarrerak eta erretiro-pentsioak bateragarri izateko moduan nahi lukete lan egin, gainera. Jakina da gaur egun hainbat aukera daudela, eta horiexek aztertuko ditu **Eva María Blázquez**-ek zehatz-mehatz, baina baita askoz gutxiagotan jorratu izan diren kontu batzuk ere, erretiro-tik aurrera lan-harremana eta lanarekiko harremana (bi gauza desberdin dira) modu erabat berritzailean arautzea komeni ote den esploratzeko. Irtenbidea «dena edo ezer ez» delako, jendetsua izaten ari ez den malgutasun- eta/edo bateragarritasun-aldaerekin «bateragarritasun-kontratu» berri bat, ordainsariko «pertxa» gabea (edo asko gabea), adibidez, duela mende erdi baino gehiagoko aerolineek «*no frills*» esaten ziotena, irtenbide egokia izan daiteke, ausartuko bagina arlo horretan ere berritzen saiaturiko bagina. Lan-merkatuan gertatzen den guztia pentsioetan islatzen da, eta Gizarte Segurantzak, arau-ikuspegi bermatzaile eta prooperario batean oinarrituta, nekez konpon ditzake (eta bastante egiten du halere) enplegu askoren egungo kalitate eskasak eragiten dituen arazo larriak. Hori nahikoa ez balitz ere, **Matthew Taylor**-ek bere saiakera laburrean aztertzen duen bezala, digitalizazioak lanaren etorkizuna nabarmen markatuko du, dagoeneko hala egiten ari baita, eta galdera asko etorriko dira hortik. Lan onak sortu behar ditugu (*good jobs*), eta digitalizazioak izan behar luke hori lortzeko bidea, eta ez prekarizatze bidea.

Edo, halaber, langile bakoitzarentzako (nahikotasuna) zein sistema osoarentzako (jasangarritasuna) pentsioei dagozkien konponbideez ari garela, **Jorge Bravo**-k ikuspegi berri bat azaldu du oso eremu konbentzionala den honetan, hauxe: finantza-irtenbideak aplikatzea erretirorako. Konbentzionala da, dirudielako XX. mendeko parametroetatik ateratzen ez dakigula, nahiz eta behar duguna zera den, XXI. mendeko erretirorako irtenbide finantzario eta integral berriak taxutzea, kontuan izanda, erretiro hori, zenbakiak adierazten dutena baino luzeagoa izango ez bada ere, gutxienez bizkorragoa izango dela. Horregatik, kapitulu honen funtsa konponbide berriei eta, bereziki, integralei buruzko ideiak ematea da. Berria «zahararren» aldaera da. Biziarteko errentak dira «irtenbidea», eta horretan berritasuna da bizi-luzetasunaren baldintza berrietara egokitzen asmatzea, gure aurrezpen-prebisionen desmetaketa eraginkorra eta efizientea lortzeko. Berria da, halaber, erretirorako baliabide finantzarioen eta ez-finantzarioen konbinazioaren ideia kontzeptualizazioa, erretirorako diru-zorro bat (*Retirement Wallet*), aukera emango duena erretiroa ondo bizitzeko, baliabide nahikoak, iraunkorrak eta seguruak izanda. Horretarako, dena da balekoa, baita baita erretiratu ondoren lan egitea ere (Eva Blazquez lanean xehetasunez aztertzen da hori), alegia, baliabide ez-finantzarioa, denbora bera –bizitzako metrika garrantzitsuenetako bat, dirua baino gehiago–.

Aurkezpen hau amaitzeko, monografiko honek argumentu-ildo bat osatzen duten ekarpenak biltzen ditu: hasi publiko handiak gutxi ezagutzen dituen erliebeak dituen demografiatik –gutxi ezaguna da gaizki jasotzen duelako sinplifikazio burugabe eta kaltegarriez inguraturik dagoelako–, ez dena bideratzen konponbide bideragarriak hartzera, eta adinaren etorkizuna, ugalketa demografikoa eta gizartearen kide aktiboen lana arte. Tartean agertuko dira baita ere inplikazio sozioekonomikoak edo finantzarioak, eta eztabaida sozialaren aurrerapena, nahiz adostasunak eta edozein motako irtenbideak, oraintxe bertan beharrezkoak dira-eta. Diziplina anitzeko laburpen-ahalegina da, soziologia, demografia, ekonomia, finantza-zientzia eta zientzia aktuariala eta zuzenbidea oinarri hartuta. Ziur asko, hobetu daiteke, eta gure gizarteetan eragina duten fenomeno demografikoak eta haien inplikazio anitzak hobeto ulertzen laguntzea espero dugu.

Monografikoa lan batekin biribiltzen da, *Beste kolaborazio batzuk* atalean; han **Jon Olaskoaga**-k, **Judith Ranilla**-k eta **Juan Jose Mijangos**-ek Espainiako eta Euskal Herriko manufaktura-enpresen gehiegizko zorpetzearen arriskuaren arrazoia argi dezaketen faktoreak ikertzen dituzte. Ikerketa horrek agerian utzi du eskualde bakoitzaren ezaugarriek eragina izan dezaketela bertan kokatzen diren enpresek gehiegi zorpetzeko duten arriskuan. Emaitzak bide emango digu zorpetzearekiko Espainiako eskualde desberdinetako enpresek dituzten jokabideen arteko desberdintasunak are modu sistematikoagoan bilatzera; eta jokabide desberdin horiek eskualdeen arteko ezberdintasunak azalduz justifikatzera. Ebidentziak adierazten du, halaber, balitekeela administratzaileak akziodunekiko independentzia izateak enpresen gehiegizko zorpetze-mailen probabilitatea murriztea.

